



JAKIUNDE

ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA

PRENTSA OHARRA

Azaroaren 20an, 10:00etan, *Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiak* ohiko bilkura egingo du Arabako Foru Aldundiaren batzar-aretoan, Gasteizen. Ekitaldian, joan den apirilaren 3an aukeratutako osoko kide berrien inbestidura egingo da. Honako akademikide hauek hartuko dute kargua:

- Ana María Echaide, filologoa
- José Antonio Garrido, ingeniaria
- Jean Haritschelhar, filologoa eta idazlea
- María del Carmen Mijangos, kimikaria
- José Ramón Recalde, legelaria eta kazetaria
- Javier Retegi, ingeniari teknikoa eta Eusko Ikaskuntzako lehendakari ohia
- José María Setién, legelaria eta teologoa
- Javier Tejada, fisikaria.

Jakiundek lehen aldiz handitu du kideen kopurua, eta dagoeneko hainbat arlotako 45 akademikide biltzen ditu. Guztiak kualifikazio handiko pertsonak dira, eta euren izaera kritikoagatik, sormen-gaitasunagatik eta lanean erakutsitako zorrotasunagatik nabarmendu dira. Era berean, guztiak prest daude euren jakintza erakundeari eskaintzeko, Jakiunde maila goreneko eztabaidagune bilaka dadin, hau da, bikaintasun zientifikoaren eta artistikoaren sustatzaile, ezagutzaren gizarte aurreratuei dagozkien erronkak eta aukerak aztertu eta interpretatuko dituen goi mailako aholkularitza-organo. Akademikideen curriculumak Jakiunderen web orrian azaltzen dira: www.jakiunde.org

Bilkuretan ohikoa denez, akademikide batzuek euren diziplinari eta egiten ari diren lanari buruzko hitzaldia eskainiko dute: Javier Aguirresarobek zineman egiten ari den lana aurkeztuko du, eta Enrique Zuazuak matematika alorrean egin dituen ekarpenak izango ditu mintzagai.

Akademia sendotzeko fasea hasiberritan, erakunde barruko gaiak jorratuko dira bilkuran, horien artean zientzia eta letren batzordeen osaketa zertan den. Izan ere, ezagutzaren bi arlo horietan ikerkuntza zein egoeratan dagoen aztertuko da. Jakiundek hainbat proiektutan duen partaidetza ere hizpide izango dute kideek.

Gaur egun Jakiunde zientzia arloko hainbat lankidetzajardueretan ari da lanean:

Ikerbasque fundazioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, Jakiunde **Zientzia Foroa** izeneko egitasmoko partaide da. Ezagutzaren hainbat arlotan nazioarteko ospea duten ikertzaileekin ezagutza elkartrukatzeko gunea sortzea du helburu egitasmoak.

Aurten Zientzia Foroak bost hitzaldi eskaini ditu. Horietan hizlari izan dira Carlos Waisman soziologoa (*norantz goaz? Munduko krisiaren ondorio ekonomikoei buruz, 30eko hamarkadako ispiluan*), Sir John Ball matematikaria (*matematikak guztion begiradapean – Perelmanen historia eta Poincaréren aierua*), Jean-Paul Bronckart psikologo eta hizkuntzalaria (*hizkuntzaren eragina garapen psikologikoan*), Lord Patten of Barnes politikaria (*prest al gaude? Europa kolapso ekonomikoaren ondoren*) eta Dudley R. Herschbach kimikaria, 1986ko Kimikako Nobel sariduna (*Zientziaren abentura*). Aztertutako gaien gainean adituen ikuspegia eskaini dute.

Era berean, Jakiunde **G+20** prozesuan parte hartzen ari da Eusko Ikaskuntzarekin batera. Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategia Bulegoak sustatutako egitasmoak lurraldearen etorkizuneko ikuspegia lantzea du helburu. Horretarako, 20 urteko epean heldu beharreko erronka estrategikoei buruzko hausnarketa sistematikoa eta aldizkakoa egitea proposatzen du.

Bukatzeko, Jakiundek 2010ean Biltzarra egiteko egitasmoari buruzko informazioa eskainiko du. Gizarte Zientzietan eta Humanitateetan ikerkuntza zein egoeratan dagoen aztertzeke metodologia landuko du biltzarrak.

Prentsa-harremanak:

Jone Karres

Tel. 943-310855 / 637978748

jakiunde@eusko-ikaskuntza.org

www.jakiunde.org